



HAL
open science

Iragankortasunaren dinamikaz zubereran, bigarren etapa: barneko ekonomia, hizkuntza ukipena eta edo egileari buruzko ikusmolde berria?

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Iragankortasunaren dinamikaz zubereran, bigarren etapa: barneko ekonomia, hizkuntza ukipena eta edo egileari buruzko ikusmolde berria?. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 2007, 106, pp.401-417. artxibo-00261715

HAL Id: artxibo-00261715

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00261715>

Submitted on 8 Mar 2008

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

IRAGANKORTASUNAREN DINAMIKAZ ZUBERERAN, BIGARREN ETAPA : BARNEKO EKONOMIA, HIZKUNTZA UKIPENA ETA EDO EGILEARI BURUZKO IKUSMOLDE BERRIA ?

JEAN-BAPTISTE *BATTITU* COYOS*

Artikulu hau zubereraren baliobiko aditz zenbaiti buruzko ikerketaren bigarren etapa da, “kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak” deitu ditudanak¹. Gaur egun aditz horiek bi edo, aldi batzutan, hiru era ezberdinez eraikitzen dira, ber adiera izanik hiztunen arabera. Hola da, adibidez, *behati* “entzun”, *hasi*, *mintzati*, *nausiti* “nagusitu” edo *oritü* “oroitu” aditzekin. Lehen begi-ukaldian, iduri luke *izan* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak adineko hiztunek erabiliagoak litzatekeela; gazteek alderantziz **edün* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak nahiago lituzkete. Aditzak banan-banan aztertuz, joera hori egiaztatu dut guti gorabehera, jakinez eraikuntza bikoitz horietarik zenbait testu zaharretan ere aurki daitezkeela eta batzutan ber idazlearen testuetan (Coyos, 2005).

Lan hau 2005ekoa baino teorikoagoa izanen da, azken hori deskribatzaileagoa zelarik. Joera azaltzen saiatu baino lehen, fenomeno orokorra ongi ateratu eta mugatu behar nuen, diakronian, sinkronian. Beraz iturriak, aditz bakoitzaren eraikuntzak, adinaren araberrako emaitzak ezagutu nahi dituenak 2005eko artikulura jo beza. Ondoko lerroen helburu nagusiak bariazioaren eta aldaeraren eragileen ateratzea, eta gero, ahal bada, garrantziaren arabera eragile hoién sailkatzea dira².

1. KASU ADIERAZPEN BIKOITZEKIKO BALIOBIKO ADITZEN BI ADIBIDE

Sintaxia mailan, euskarán, jakina da enuntziatzioren partehartzaileak izen-determinatzaileen bidez gauzatuak direla esaldian, izen-sintagma bakoitzak kasu atzizki bat duelarik. Izen-lexema horiek prozesua gauzatzen duen aditza determinatzen dute. Zubererán, baliobiko aditza aditz laguntzaile batekin eraikitzen da gehienetan, *izan* ala **edün*. Izen-determinatzaile horiekin elkarrekikotasunean den pertsona-indize bat aurkitzen da aditzean. Aditz-laguntzailearen pertsona-indize horiek absolutibo, datibo edo ergatiboarekiko izen-

* IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea – Baionako CNRSaren UMR 5478.

¹ Artikulu honetan, 2005ko *Fontes Linguae Vasconum*en 100. aleko « Iragankortasunaren dinamikaz zubererán : kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen ikerketaren lehen etapa » artikuluan hasi nuen ikerketa jarraitzen dut. Segida hau Parisen, 2006ko martxoaren 30ean, *Connaissance bilingue et traduction – Un défi pour l'identité culturelle de l'Europe* jardunaldietan aurkeztua izan den hitzaldian oinarritzen da. Testu hori aldatu eta emendatu dut zabalki.

² Baina azken helburu hau nahimena izanen dela ikusiko dugu, egiazko lorpena baino. Halere uste dut norabide honetan ongi atzinatua naizela.

sintagmak ordezkutzen dituzte aditzean. Beste kasurekiko izen-determinatzaileek pertsona-indizerik ez dute aditzean ; hola da ondoko kasu instrumentalarekiko adibide batean (2 a).

Hasteko hona aditz hoiien bi adibide eta horiei buruzko iruzkin syntaxiko eta semantiko batzuk.

nausitü “nagusitu”: *izan* (ABS+DAT)-ekiko eraikuntza edo **edün* (ERG+ABS)-ekiko eraikuntza, *Miarritze Baionari nausitü zai* / *Miarritzek Baiona nausitü dü*³.

(1 a) *Miarritze*_{ABS} *Baiona-ri*_{DAT} *nausi-tü*_{Abu} 3ABS (Ø)-*za-io*_{3DAT}

(1 b) *Miarritze-k*_{ERG} *Baiona*_{ABS} *nausi-tü*_{Abu} *d*_{3ABS-ü-3ERG} (Ø)

Gazteen artean, egin dudan idatzizko inkestan bederen, **edün* (ERG+ABS)-ekikoa da eraikuntza nagusia, bakarra ere egin behar zituzten itzulpenetan. Heldu eta adinekoekin alderantzia da. Zalantzarik gabe esan dezakegu bilakaera badela, *izanekiko* eraikuntza baztertua ez bada ere (Coyos, 2005: 649-650).

mintzatü: *izan* (ABS+DAT)-ekiko eraikuntza edo **edün* (ERG+ABS)-ekiko eraikuntza, *eüskaraz mintzatzen da* / *eüskara mintzatzen dü*.

(2 a) *eüskara-z*_{INST} *mintza-tzen*_{Aezbu} *d*_{3ABS-a}

(2 b) *eüskara*_{ABS} *mintza-tzen*_{Aezbu} *d*_{3ABS-ü-3ERG} (Ø)

Diakronian Egiategik (1785) **edün* (ERG+ABS)-ekiko forma hori behin baizik ez du erabili. Aztertu ditudan beste idazleek *izanekikoa* beti erabili dute. Oraiko testuetan ere **edünekiko* eraikuntza ez dut atzeman. Beraz, **edün* (ERG+ABS)-ekikoa “berrikuntza” hori gazteek erabilten dute, baina ere 3 adinekok eta 5 helduk baliatu dute beren inkestako itzulpenetan. Azpimarratu behar da beste bi aterabide linguistiko gehiago agertzen direla, hizkuntza batez hitz egitearen nozioa adierazteko: *eüskaraz ari* / *eüskara eman* (Coyos, 2005: 649).

Semantikaren mailan, emankizun semantikoak aztertuz, Miarritze hiria da egilea eta Baiona jasalea, *izanekiko* esaldian ala **edünekiko* esaldian *izan* dadin. Emankizunak ez dira aldatzen (1 a) eta (1 b) adibideetan, eraikuntza sintaktikoak baizik. Halere, pentsa genezake **edünekiko* eraikuntzan Miarritze hiria egileagotzat hartua litzatekeela (*Miarritzek*, ERG) *izanekiko* eraikuntzan baino (*Miarritze*, ABS). Baina informatzaileen arabera lehiaketan diren bi eraikuntzek adiera bera dutela esan dugu, jakinez gehienetan hitzun bakoitzak bata ala bestea erabilten duela, eta ez biak, ezagutzen baditu ere.

Mintzatü aditzaren bi eraikuntzekin zerbait konparagarria esan genezake, (2 b) adibidean mintzatzen denak ekintza beregain hartzen duela esanez, (2 a) adibidean baino gehiago. Baina, horretan ere, informatzaileen arabera eta puntu hori gehiago aztertu gabe, bi esaldiek adiera bera dutela iduri luke.

Aditz iragankortzat hartuko dut bi argumentu inplikutzen dituen aditza, bi partehartzaileak bizidun ala bizigabe izan daitezen. Deitu ditudan “kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak” oroekin egile-izaerarekiko argumentua *izanekiko* eraikuntzetan absolutiboaren bidez

³ Erabiliak diren laburdurak : ABS = absolutiboa, Abu = aspektu burutua, AezBu = aspektu ez burutua, DAT = datiboa, ERG = ergatiboa, INST = instrumentala, (Ø) = forma hutsa, 1ERG = ergatiboarekiko lehen pertsona singularra, 3ABS = absolutiboarekiko hirugarren pertsona singularra, 3DAT = datiboarekiko hirugarren pertsona singularra, etab.

gauzatzen da edo ergatiboaren bidez **edūnekiko* eraikuntzetan. Bildu ditudan hogeita hamabi (32) aditz horiek beherak dira iragankortasun semantiko eskala enpiriko batetan. Aditz horien artean, hitzezko komunikazio aditzak baditugu (5, *mintzatū* bezala), borroka, lehiaketa aditzak (7, hoien artean bost telikoak, *nausitū* bezala⁴), tresna erabilera aditzak (2), pertzepzio eta sentipen aditzak (12, *orit* bezala), modalitate aditzak (5, *hasi* bezala) eta helburu batetarako desplazamendu aditz bat baditugu.

2. KUADRO TEORIKOAZ: BARIAZIOAREN ETA ALDAERAREN PROBLEMATIKA, HORIEN ZERGATIAK. “*SINKRONIA DINAMIKO*” KONTZEPTUA

Gure abiapuntua “*sinkronia dinamiko*” kontzeptuarena izanen da. 1985ean Anne-Marie Houdebine frantses hizkuntzalariak idazten zuen:

“Sinkronia mugikor, hierarkizatu da ; abstrakzio metodologiko hutsa da mugiezina dela esan izatea ; beste era batez ikusirik izan daiteke: erabilera ezberdinen elkarriko bizitza bezala, sinkronian erabilera horien mota askotako pisuak bilakera era ezberdinez eragiten duela (1985: 7) ; (...) egituratze finko edo azkarrekiko eremuz ohartzten da eta bestez gutiago direnak. Neutralizazioek, gorabeherak [*fluctuations*⁵] azken horiek erakusten dituzte” (1985: 9)⁶.

André Martinet aipa dezagun sinkronia dinamiko kontzeptu hori zehazteko:

“Benetan, sinkronia dinamikoak diakroniara eramaten gaitu zuzenki, baina diakronia berriztatu bat zereneta fenomeno aldakorraren modalitateei buruzko argitzearekin hipotesiaren zatia murrizten ahalbidetzen duen” (1989: 52)⁷.

Unitate batzuen bariazioa eta bai ere bilakaera argitaratu eta, fenomeno azaldu dugula baieztatu ote dezakegu ? Christos Clairis hizkuntzalariak idazten du:

“Betiko bariazioen arteko dialektiko iraunkorra da aldaera baimentzen duen oinarrizko mekanismoa, esan nahi baita hizkuntzen bilakaera edo batzutan horien jaiotzea edo desagertzea” (2005: 20)⁸.

Aldaketa linguistikoei interesatzen gatazkienean teleologiaren arriskua eta azalpenaren gabezia ezagutzen ditugu. Hala Pierre Swiggers hizkuntzalari belgikarrak, adibidez, André Martinetek *Economie des changements phonétiques* liburuan garatzen duen teoriari eta metodologiari buruz galdegin dezake:

⁴ “Telikoa” izenlaguna erabiltzen da amaitzen den prozesu baten kasuan. *Borrokātū* aditza, adibidez, telikoa ez da.

⁵ Hiztunak bere idiolektoan bi fonema edo bi egitura sintaktiko erabiltzen baldin baditu adiera berarekin, bariazio hori “gorabehera” (*fluctuation*) deitzen da (C. Clairis, Identification et typologie des fluctuations, *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris.*, 1991, LXXXVI, 1, Paris, Klincksieck, 19-35).

⁶ “La synchronie est mouvante, hiérarchisée ; c’est pure abstraction méthodologique que de l’avoir dite statique ; elle peut être envisagée autrement : comme une co-existence d’usages variés dont le poids inégal dans la synchronie, influence de façon différente l’évolution” (1985 : 7) ; “(...) on repère des zones de structuration fermes ou fortes et d’autres qui le sont moins. Les neutralisations, les fluctuations les révèlent” (1985: 9).

⁷ “En fait, la synchronie dynamique nous mène directement à la diachronie, mais une diachronie renouvelée en ce qu’elle permet de réduire la part faite à l’hypothèse en nous renseignant précisément sur les modalités du phénomène évolutif” (1989: 52).

⁸ “La dialectique permanente entre les variations toujours présentes est le mécanisme fondamental qui assure le changement, c’est-à-dire l’évolution des langues et parfois leur naissance ou leur disparition” (2005: 20).

“Egiazko azalpena (kausala) ote da ala azertu diren fenomenoaren deskribapen adierazgarria, prozesuak beren osotasunean begiratzeko ahalbide daitekeena ?” (2002: 113)⁹

Galdetuko da fenomenoaren bilakaera sistema linguistiko hitzetan ala sistematik kanpoko eragilen bidez azal daitekeen. “Ezin ikusizko eskua”-ren prozesuaren kontuan uzten ahal ote da fenomenoaren azalpena? Helmut Lüdtkek “ezin ikusizko eskua”-ren kontzeptua hola definitzen du:

“Fenomenoa metaforikoki “ezin ikusizko esku prozesu” deitua dena: ez planifikatu edo nahitu horrelako, baina halere giza-jarduerak sortua; berezikiago kopuru askotako ustekabeko ekintzen emaitza dena (1989: 131)¹⁰.

Puntu horri buruz William Labov zalantzarik gabeko da:

“ (...) hizkuntzan ezinezkoa da ulertzea aldaketa baten aurreratzea, aldaketa hori eragiten duen hizkuntza-komunitatetik kanpo. Edo ere, beste era batez esanik, gizarte-presio batzuek etengabe hizkuntzari eragiten diotela, ez iraganeko puntu urrun zerbaitetik, baina bai orain eragiten ari den barneko gizarte-ingar batetik” (1976: 47)¹¹.

Eta, azken finean, bi mailak kontuan hartzen ditu, barneko hizkuntzarena eta soziolinguistikoarena:

“Baina bizi den hizkuntzaren gizarte-testuinguruaren ikerketa zehatzagok erakutsi dute egitura linguistikoaren elementu askok barneko aldaketa diakronikoa eta hizkuntzaz kanpoko gizarte-prozesua ikusarazten dituen bariazio sistematikoan parte hartzen dutela” (ibid.: 177)¹².

Hau da erakusten saiatuko dudana zubereraren baliobiko aditz multzo berezi hori aztertuz.

3. FENOMENOAREN EZAUGARRI BATZUK: JOERA ETA EZ ALDAERA, UNITATE BATZUETATIK APARTE HIZTUN BATZUENTZAT

Hau da xehetasunetan gehiegi sartu gabe nola fenomenoaren zehaz daitekeen.

Kasu- eta aditz-pertsona indize markatzearen bariazio datuak eta beraz aditz batzuen eraikuntza ezberdinak XVI. mendetik aurrera ikus daitezke, lehen liburur zuberotarrak XVII. mendekoak direlarik. Horrek begiratzeko denbora-hedadura ematen du, baina ez hain luzea¹³.

Indarrean den prozesuak analogian parte-hartzen du: ez da gramatikalizazio gertaera bat edo berranalisi batena (Marchello-Nizia: 34).

⁹ “S’agit-il d’une véritable explication (causale) ou s’agit-il d’une description suggestive de phénomènes observés, permettant d’envisager la globalité des processus ?” (2002: 113).

¹⁰ “Phonemata which is metaphorically called “invisible-hand processes”: not planned or intended as such, but nevertheless due to man’s activity; more specifically, to the involuntarily combined effect of great number of single acts” (1989: 131).

¹¹ “(...) il est impossible de comprendre la progression d’un changement dans la langue hors de la vie sociale de la communauté qui le produit. Ou encore, pour le dire autrement, que des pressions sociales s’exercent constamment sur la langue, non pas de quelque point du lointain passé, mais sous la forme d’une force sociale immanente et présentement active ” (frantses itzulpena, 1976: 47).

¹² “Mais des études plus précises du contexte social au sein duquel opère le langage ont montré que bien des éléments de la structure linguistique participent à une variation systématique qui reflète à la fois un changement diachronique interne et des processus sociaux extralinguistiques” (ibid.: 177).

¹³ Ikus liburu zuberotar haututan mendeen zeharkako aditzen bilduma sistematikoa in Coyos, 2005: 637-640.

Ez da ere berrikuntza bat baina bai unitate batzuentzat, esan nahi baita baliobiko aditz batzuentzat, eraikuntza ordezkatzeko bat, unitate gehienek bururatu ez den bariazioan parte-hartzen dutela ohartuz.

Aztertuak diren unitateak beren osotasunean hartzen baldin baditugu, aditz multzo uniforme bat balitz bezala, aldaera ez denik esan daiteke baina *bariazioetik landako ordezkapen joera* bat, hiztun gazteetan bereziki, hastapena eta noski bukaera ezagutzen ez ditugunen *continuum* baten zehar. Konkurrentzian diren bi eraikuntzetatik baten ezabaketa osorik ez dela azpimarratu behar da, nahiz hiztun eta aditz batzuentzat hala den, esan nahi baita haien idiolektoan **edünekiko* eraikuntza nagusitu dela, *izanekikoa* ordezkatzuz.

Beraz, unitateak banaka kontuan hartzen baldin baditugu, aditz gutxien kasuan **edünekiko* eraikuntza bakarra dela konturatzen da, eta hori hiztun gazteetan bereziki : *ahatze* “ahaztu”, *baliatü* “erabili”, *behatü* “entzun” (baina gazte batzuk *entzün* erabilten dute ere *behatü*-ren ordezkari, euskara batuaren eta beste euskalkien eraginarengatik), *gozatü*, *nausitü* “nagusitu”, etab. Horrek ez du esan nahi hiztun zaharragoek aditz horiekin **edünekiko* eraikuntza ez dutela erabilten, baina *izanekikoa* erabilten dute ere bai.

Beharrezkotasun agergarririk ez da bilakaera horretan eta iduri luke, gaur egun, bilakaera horren azelerazio bat genukeela. Baina intuizio hori aztertzeko litzateke. Halere, borroka, lehiaketa aditzen kasuan, bururatzen den prozesua dutenak, *nausitü* bezala, **edün* aditz-laguntzailearekin erabilgarriagoak direla ohartzen gara. Aldiz, bururatzen ez den prozesua dutenak, *güdükatü* bezala telikoak ez direnak beraz, *izanekin* eraikitzen dira. Aditz-mota honekin bederen motibazio semantikoa genuke.

4. ADITZ SISTEMA : ERAIKUNTZA PROTOTIPIKO DESBERDINEN TAULA, BALENTZIAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA

Zubereraren aditz eraikuntzen bilakaera neurtzeko asmotan, lerro hauetan aurkeztua den ikerketa batbalioko aditzeei (*izanekiko* eraikuntza nagusiki, baina bai ere aditz gutxien kasuan **edünekikoa*, *iraün* bezala) eta **edünekiko* hirubalioko aditzeei hedatua izan behar litzaike. Hona aditz-eraikuntza nagusien sintesia.

Batbalioko aditzak	"erori"	"iraün"	Baliobiko aditzak	"nausitü"	"har"	Hirubalioko aditzak	"eman"
Aditz-laguntzaile	<i>izan</i>	<i>*edün</i>	Aditz-laguntzaile	<i>izan</i>	<i>*edün</i>	Aditz-laguntzaile	<i>*edün</i>
Kasu	ABS (usu)	ERG (bakan)	Kasu	ABS+ DAT	ERG+ ABS	Kasu	ERG+ ABS+ DAT
Bilakaera	(aztertzeko)	(aztertzeko)	Bilakaera	txikitze	handitze	Bilakaera	(aztertzeko)

Helmut Lütdkerekin bi eraikuntzen arteko “fusioa”z (*merger*) mintza daiteke (1985 : 359), baina, halere, (ABS+DAT) markatzea ez da desagertzen. Hemen aztertuak ez diren beste baliobiko aditz batzuentzat bariatorik ez dela bistako da : erabilia den eraikuntza bakarra *izan-*

ekikoa da. Horietan dira pertzepzio/sentipen aditz batzuk (*gustatü*, *laketü* “atsegin izan”), mugimendu aditzak (zerbaitetara *joan*, zerbaitetarik *jin* “etorri”), etab.

Ohartaraz dezagun sistema fonologikoarekin eta berezikiago fonema baten galtzearekin gerta daitekeen bezala, aditz bat eraikuntza batetik (*izanekikotik*) bestera (**edunekikora*) baldin badoala nahasketa arriskurik ez dela. Esaldia ulergarria egoten da.

5. JOKOAN DIREN ERAGILEEN BILERA SAIAKERA: BARNEKO EKONOMIA

Badakigu Zipfen “ahalegin txikiaren lege”-tik (*loi du moindre effort*) abiatuz Martinetek bere “ekonomia” printzipioa sortu zuela, fonologiari aplikatuz. Martinet aipatzen dut:

““Ekonomia”-k dena estaltzen du: baliogabeko bereizketen murrizketa, bereizketa berrien agertzea, *statu quo*-ren mantentzea. Ekonomia linguistikoa eragiten duten indarren sintesia da” (1955: 74)¹⁴.

Teoria hori oinarritzen duten printzipioak onartuz, galdera bat bertan etortzen da: fonologian aplikatzen diren metodoak, kontzeptuak eta lorpenak sintaxiari aplikagarriak ote dira?

Lehen printzipioa:

“Baldintza edo testuinguru beretan, elkarrulerkuntzarentzat beharrezkoa den aurkakotasun fonologiko bat behargabeko bat baino atxikitzen da” (1955: 23-24)¹⁵.

Gure kasuan esan daiteke bi aditz-eraikuntzen arteko aurkakotasunak baliagarritasun bereizgarriarik ez duela, sinkronian, hizkuntzaren historian zehar semantikoki oinarritzeko izan zedin ere. Agerian, aztertzen ditugun *izanekin* eraikitzen diren aditzek, maizenik, ukitu ez den jasalearekiko (“ez-egilea”) prozezu bat erakusten dute, aditz horietatik batzuentzat egilea hain aktibo ez da. Beharrezkotasun bakarra da bi argumentu horien (egilea eta “jasalea”) markatzea ezberdin izan dadila, solaskideak argumentu horien artean zein den eraginkorra (egilearen emankizun semantikoa duena) eta zein den pasiboarena (“jasalea”ren emankizun semantikoa duena) jakin dezan. Horretarako (ERG+ABS) kasu-markatzeak (ABS+DAT) edo (ABS+INST) kasu-markatzeak bezain ongi seinatzen du.

Beste printzipio bat da “etekin funtzionalea”-rena (*rendement fonctionnel*) edo maiztasunarena:

“Etekin funtzional handirekiko aurkakotasunaren kasuan, hiztunek aurkakotasun hori begiratzeko joera dute” (1955: 111)¹⁶.

Baina ez da gure aurkakotasunaren kasua, *izanekin* eraiki diren aditzak ugari ez baitira. William Croft & D. Alan Cruse aipatzen ditut:

“Irregularitasuna maiztasunarekin lotua delako gaineratiko nabaritasun dinamikoa da behe-maiztasunarekiko forma irregularrak erregularitasunari maizago ekarriak zaizkiola produkzio linguistikoan” (2004: 294)¹⁷.

¹⁴ ““Economie” recouvre tout : réduction des distinctions inutiles, apparition de nouvelles distinctions, maintien du statu quo. L'économie linguistique, c'est la synthèse des forces en présence ” (1955: 74).

¹⁵ “Toutes choses égales d'ailleurs, une opposition phonologique utile à la compréhension mutuelle se maintient mieux qu'une autre moins utile” (1955: 23-24).

¹⁶ “Dans le cas d'une opposition d'un rendement fonctionnel considérable, les locuteurs ont tendance à la conserver ” (1955: 111).

¹⁷ “Further dynamic evidence that irregularity is correlated with frequency is the evidence that low-frequency irregular forms are more likely to be regularized in production” (2004: 294).

**Edün* aditz laguntzailearekiko eraikuntza emankorra da. Eta hori hizkuntza auzoetatik, gaztelera, frantsesa, hartutako maileguekin egiaztatzen da. Aldiz, mailegu hoiekin, *izan* aditz laguntzailearekikoa emankorra ez dela irudi luke. Eta beraz adin-talde gazteenetako hiztunek *izanekiko* eraikuntzak irregularizat hartuko lituzkete.

Baina hori Martineten beste printzipio baten aurka lihoake. Aipatzen dut:

“Era orokorrean, fonema baten agerpenak gero eta gutxiago asmagarri eta igurikatuak direlarik, esan nahi baita guti gorabehera ardurakoak ez direlarik, fonema horren balio bereizlea gero eta gehiago handiago da eta hiztunak horren artikulazioaren ongi ahozkatzera gero eta gehiago tiriatzen ditu” (1955: 71)¹⁸.

Mutatis mutandis, fonologiatik sintaxira pasatuz, bi aurkako eragilen arteko kontraesana daitekeela esan dezakegu, alde batetik behe-maiztasunari lotua den ekarpen informatibo handiagoa eta oroimen gastatzea (*dépnse mémorielle*) bestetik, eta hori azken horren alde. *Izanekiko* eraikuntzak baztertuz, behe-maiztasunari lotua den ekarpen informatiboa ez litzateke kontuan hartu aurkakotasun horren balio ahularen aurrean, oroimen gastatzearen aurrean. Aditz paradigma baten ezagutzea behargabekoa bilakatzen da, absolutibo eta datibo pertsona-indizeekiko *izan* aditz laguntzailearena (“NOR-NORI” paradigma famatua), zeren, gisa oroz, nagusitzen den **edünekiko* markatzeak bi argumentuen arteko bereizketa begiratzen baitu.

Lüdtkek, besteak beste, beste bi parametro proposatzen ditu. Bata “mintzaira heterogenotasuna” da (*hétérogénéité langagière*):

“Erabilera nagusiari egokitu nahian (...) arreta mezuaren edukian jartzeko, hiztunak, nahi gabe, heterogenotasun tasaren murriztean parte hartzen du” (1986: 14)¹⁹.

Emendatzen duen bigarren parametroa “unibokobitasun²⁰ tasa” da (*taux de biunivocité*), analogiarekin ikusteko duena :

“Joera hori jatorrizkoa da haurrengan, horiek ikasten duten edozein arau orokortzen hasten dira” (1986: 14)²¹.

Memoria gastatzea izan dadin, heterogenotasunaren aurkako “konformismoa” izan dadin edo “unibokobitasun tasaren optimizazioa”-ren bidezko analogia, gorago aurkeztua izan den joera hauxe da: aditz eraikuntza modelo bat baizik ez da aplikatzen. Oroimen mailan kuntsumo urrikoa da; aditz bat ezaguna ez denean eta lehen aldikoz erabilia delarik arazorik ez da (adibidez eskolan ikasten duten haurren kasuan). Aditz paradigma bakar batekin aditz-multzo handi bat erabil dezakezu.

Beste eragile bat “aztura eskuratuen presioa”-rena (*pression des habitudes acquises*) izan daiteke:

“Aspaldidanik indarrean den aurkakotasuna ongi oinarritu ez dena baino erresistenteago izanen zaio aldaketari”²².

¹⁸ “De façon générale, moins les apparitions d’un phonème sont prévisibles et attendues, ce qui veut dire, en gros, fréquentes, plus grande est sa valeur distinctive et moins les locuteurs sont tentés d’en négliger l’articulation” (1955: 71).

¹⁹ “En cherchant à se conformer à l’usage dominant (...) pour ne pas détourner l’attention du contenu du message, le sujet parlant contribue sans le vouloir explicitement, à diminuer le *taux d’hétérogénéité*” (1986: 14).

²⁰ “Unibokobitasun” hitz hori asmatu dut “biunivocité” hitza itzultzeko.

²¹ “Cette tendance est innée aux enfants, qui commencent par généraliser n’importe quelle règle qu’ils apprennent” (1986: 14).

Aztertzen dugun kasuan, printzipio hori ez litzateke hain eraginkorra *izanekiko* eraikuntzak aspaldikoak baitira. Gainera, bakarrik indarrean balitz, holako printzipioak edozein hizkuntza aldaketa geldiaraz lezake, edozein berrikuntza hizkuntzetan.

Agertzen da, gero eta gehiago, zerrendatu ditugun printzipioak gutxiegi direla aurkeztutako datuak adiarazteko eta, bereziki, aditz bakoitzaren joera desberdina ulertzeko. Beste eragile jokoan sartzen dira.

Hirugarren lerroaldearen bukaeran beste ahalezko faktore bat aipatu dut. Motibazio semantikoa eragile izan daitekeela erakutsi nuen 2005eko artikuluan, aditz multzo baten kasuan bederen, lehiaketa eta borroka aditzena (651-652). Ikusiz *goitü*, *garaitü* edo *nausitü* aditzekin, adibidez, eta hiztun gazteen kasuan, *edün* (ERG+ABS)-ekiko eraikuntza hedatzen dela, aditz hoiekin prozesua amaitzen dela kontuan hartuz eta prozesua amaitzen ez duten lehiaketa eta borroka aditzekin *edünekiko* eraikuntza hori ez dela hola hedatzen ohartuz lehen aditz motarekin, joera motibatua dela suposatu dut. Baina beste eremu kontzeptualekiko aditzekin ez dut holako joera ateratu. Beraz, motibazio semantikoak ez du aztertzen dugun joera orokorra bere osotasunean esplikatzen.

6. JOKOAN DIREN ERAGILEEN BILERA SAIAKERA: KANPOKO FAKTOREAK

Martineten hausnarketak haritzat begira ditzagun:

“Gelditu gabe, errepikatu behar da nehork pentsatzen ez duela barneko faktore fonologikoak bakarrik daitezkeela eta ez ere ezinbestean eraginkorrenak” (1955: 34)²³.

Eta beraz begiratzen diegun datuek hizkuntza ukipenaren eraginaren aztertzerara eramaten gaituzte. Hizkuntza ukipenak kanpoko faktoreetan sailkatzen ditut sistema linguistiko berari lotuak ez baitzaizkio (ikus ondoko 2. taula). Ukipen hori bi motakoa da.

6.1 Hizkuntza ukipenak eta gaitasun linguistikoa

• **Hizkuntzbarneko ukipena** alde batetik, bi euskara barietaten artean bederen, zuberera barne noski : zuberera beraz eta euskara batua edo beste euskalki auzoak. Euskara batua eskualdetik kanpoko hedabide batzuetan erabilia da Zuberoan (*Euskal Telebista 1*, *Berria* egunkaria, orotara gutxi hedatuak, *Xiberoko Botza* irratian batzuetan). Eskolan ere erakutsia da pixka bat, jakinez halere Zuberoako lehen hezkuntzan zuberera da erabili eta irakatsia den euskara. Kolegioetan, esan nahi baita bigarren hezkuntzako lehen lau urteetan, euskararen irakaskuntza ez da hain hedatua Zuberoan eta lizeoetan gutxiago. Orduan euskara batua da erabilia den euskara, edo bederen Ipar Euskal Herriari egokitua den batu bat.

Beraz esan daiteke euskara batuaren eragina Oiartzungo hizkeran, adibidez, zubereraren baino handiago dela (ikus William Haddican, 2005). Zuberoan belaunaldi oso batek euskara batua ezagutzen duenik ez dugu eta frantsesa da administrazioko, goi mailako hizkuntza, elizakoa barne ere orain. Zuberoako hiztun ikasi batzuek, bereziki gazteek, euskararen militanteek edo euskaltzaleek euskara batua ezagut dezakete baina beti zubererarekin.

²² “Une opposition pratiquée depuis longtemps sera plus résistante au changement qu’une autre moins bien établie”, *Actes 13^e Colloque International de linguistique fonctionnelle*, Corfou 1986/08/24-29, Thème I. Economie des changements linguistiques, Atenas, 1988: 24.

²³ “On ne se lassera pas de répéter que personne n’a jamais prétendu que les facteurs phonologiques internes soient les seuls, ni nécessairement les plus décisifs” (195 : 34).

Haatik, batuaren edo euskalki auzoen eragina, hioen arteko bereizketa egitea zaila delarik ere, gazte batzuen hizkeran ohar daiteke:

— Euskalkian erabiliak ez diren aditz erabilera, hala nola *segitü* (**ediün* eta ERG+ABS) *jarraikiren* ordeztan (*izan* eta ABS+DAT) edo (**ediün* eta ERG+ABS).

— Euskalkian erabiliak diren aditz erabilera beste adiera batekin, adibidez *entziün* (**ediün* eta ERG+ABS) *behatü*-ren adierarekin erabilia da (*izan* eta ABS+DAT edo **ediün* eta ERG+ABS), esan nahi baita arretarekin entzutea borontatezko ekintzan. Zubereraren “entzütea” nahigabeko ekintza da.

Baina beste norabidean, gazte batzuen hizkeran, joera orokorraren aurka doan eraikuntzaz ohar daiteke aditz zenbaitentzat. Kasu horietan euskara batuaren edo euskalki auzoen eragina susma genezake : *hasi* (*izan* eta ABS+INST) nafar-lapurtarrez, *orit* “oroit” (*izan* eta ABS+INST), eraikuntza horiek ezagunak baldin badira ere Zuberoako euskalkian.

Hemen agertzen da argiki ateratu dugun multzoko aditzak banaka aztertu behar ditugula, joera orokor bat izanik ere.

• **Hizkuntzarteko ukipena** bestetik, zubereraren eta frantsesaren artekoa, jakinez euskaldun denak elebidunak direla orai Zuberoan.

Aztertzen dugun ukipena *code-switching* fenomenoan ez dugu sailkatzen ahal, aditz mailegatu zuzenik ez da²⁴. Bi hizkuntza kodeen ezaugarriak begiratuak dira. Interferentziaz mintza daiteke, baina zeharkako interferentziaz, kalko semantikoa dugularik eta ez mailegurik. Kalko bat izan daiteke zeren (**ediün* eta ERG+ABS) modeloa nagusitzen da. Euskal sintaxia begiratu da, baina orain, adibidez, frantsesaren “j’ ai oublié” esaldiaren baliokidea euskal *ahatze diüt* (**ediün* ERG+ABS) esaldia da (3 b), gero eta gehiago, hiztun zaharren *ahatze zait* (*izan* ABS+DAT) baino (3 a). Lehen eraikuntza elkarrekikotasunean da frantsesean hedatua den *avoir* aditz laguntzailearekikoarekin, eta erabiltzen da *izanekin* eraikitzen ziren aditz batzuekin.

ahatze “ahaztu”: *izan* (ABS+DAT)-ekiko eraikuntza edo **ediün* (ERG+ABS)-ekiko eraikuntza, *hori ahatze zait* / *hori ahatze diüt*.

(3 a) *hori*_{ABS} *ahatze*_{Abu} (Ø) *3*_{ABS} (Ø) *za-it*₁ DAT

(3 b) *hori*_{ABS} *ahatze*_{Abu} (Ø) *d*₃ ABS-*ü*-*t*₁ ERG

Hemen diatesi aurkakotasunik ez dugu, bi esaldiak diatesi aktiboan dira. Baina (3 a) adibidean, “jasailea” edo, hobe, nahigabeko esperientzia psikologikoaren egilea (*expérient*, *experienter*) datibo kasuarekin da (*zait*) eta (3 b= adibidean kasu ergatiboarekin (*diüt*), ahaztea nahizko ekintza balitz bezala, inplikatzearikoko ekintza.

Gazte elebidun askoren kasuan esan dezakegu matrize-hizkuntza bat dugula, frantsesa, eta hizkuntza ahokatu bat, euskara, lehena bigarrenari naugusitzen zaiolarik. Hiztun gazte horiek elebidun orekatuak ez dira.

Adin “faktore” bat ez dugu jarriko, baina bai adin “aldagai” bat, gazte bakoitzak bere hizkuntza gaitasun propioa duela azpimarratuz. Faktorea, aditzaren arabera, hizkuntzbarneko ukipena edo hizkuntzarteko ukipena da. Baina azken horrek ateratu dugun joera indartzen du. Era orokorragoan, faktorea gaitasun linguistikoa litzateke, eta beraz frantsesaren eragina aldagarria da hiztunaren arabera.

6.2 Egileari buruzko ikusmolde berria ? Subjektua (sintaxia) / Egilea (semantika)

²⁴ Hori buruz esan behar da euskara batuaren hitzek frantses maileguak ordezkatzeko dituztela zubereraren, gero eta gehiago.

Christos Clairis aipatzen dut berriz :

“Zein neurrian gertakari sozialen eta egiazko hizkuntza gertaeren arteko korrespondentzia izan daiteke? Printzipioz, hizkuntza erakunde sozializat hartzen duten denei, holako hipotesia zuzenezkoa iruditzen zaie. Halere, gertakari sozialak baita ere egiazko hizkuntza gertaerak biziki konplikatua baitira, noizbait ezin neurtutako faktore zenbakaitzak jokoan sartzen direla ikusiz, holako hipotesiaren egiaztatzeak zuhertasun eta kautela-neurri asko behartzen ditu (2005: 76-77)”²⁵.

Hori aipatu eta, esan gabe doa holako hizkuntza fenomenoaren faktoreen ateratzea ezinezkoa ez dela. Baina ateratu ditugun faktore desberdinen pisuaren neurtzea da zaila dena. Eta beraz ikerketa honen zailtasun handienetatik bat da hizkuntzaren autonomia erlatiboaren inguratzea aztertuak diren kulturaren eta gizartearen aldean, gure kasuan Zuberoako aldean. Arrisku teleologikoa nabari da.

Georg Bossongek idazten du:

“Gizakiaren esperientzia lehena bere *egoa* da, esan nahi baita bere burua ikusten duela bere ekintzak kontrolatzen dituen eta bere nahiz ari den izaki gisa” (1998: 197)²⁶.

Bossongek hizkuntza ergatiboak ez zituen aztertu 1998ko ikerketa hartan, Mendebaldeko Europar euskara hizkuntza ergatibo bakarria dela jakinez. Hori da aztertu dituen Europako hizkuntzei buruz idazten duena:

“Subjektuaren aktante-funtzioak bere adiera semantiko berezia galtzen du funtzio horrek egile-erlazio ez direnak adierazten dituen heinean (...) Esperientzia psikologikoaren egilea [*expérient, experiercer*] ez da gehiago kanpotik etortzen zaion zerbaiten jomugatzat hartua, baina sentipen eta sendimen iturriatzat (...) ondorioz subjektuaren ekintzat hartu direnak” (1992: 12)²⁷.

Ikerketaren azken aspektu hori osoki espekulatiboa irudi luke, ikergaitik kanpoko, ez zientifikoa. Halere... Barneko ekonomiaren sail bakarrean (etekin funtzionala, aurkakotasunaren baliagarritasun ahula, oroimen ekonomia / “oroimen zekentasuna”) erabakitze gai ez baldin gara, frantses kalkoaren sailaren eta beste euskara motei mailegatzearen bidez ere erabaki ezin baldin badugu, orduan, beste norabideetan, esan nahi baita hizkuntzaz kanpokoetan ikertzera tirriatu izan gaitezke. Eta sail horretan, hizkuntza indoeuropar ez den euskal hizkuntza zaindua izan bada ere, euskal gizartea, Mendebaldeko Europako gizarte denak bezala, osoki aldatu da²⁸. Modernitateak existentziaren alde osoak ukitu ditu eta euskal gizarte tradizionala irauli du: gizarte-antolakuntza eta antolakuntza politikoa, ekonomia, familia, sineskerak...

²⁵ “Jusqu’à quel point peut-il y avoir correspondance entre les faits sociaux et les faits proprement linguistiques ? En principe, pour tous ceux qui conçoivent la langue comme institution sociale devant répondre aux besoins communicatifs des membres de la société, une telle hypothèse paraît légitime. Néanmoins les faits sociaux ainsi que ceux proprement linguistiques étant extrêmement complexes, vu l’intervention d’innombrables facteurs pas toujours mesurables, la vérification d’une telle hypothèse exige un maximum de prudence et de précautions” (2005: 76-77).

²⁶ “L’expérience primaire de l’homme est son *ego*, c’est-à-dire un être vivant qui se perçoit lui-même comme agissant intentionnellement et contrôlant ses actions” (1998: 197).

²⁷ “La fonction actancielle du sujet perd de plus en plus sa sémantique spécifique au fur et à mesure que des relations non-agentives sont exprimées par cette fonction (...) On ne voit plus dans l’expérient la cible de quelque chose qui lui vient de l’extérieur, mais la source de sensations ou sentiments (...) qui sont par conséquents ressentis comme des actions émanant du sujet” (1992: 12).

²⁸ Haddicane talde-berberatasun galtze aurkitu du Oiarzunen (*loss of community identity*: 2-3) eta bere ustez galtze horrek Oiarzuneko hizkeran eragin du, tokiko ezaugarri linguistiko batzuk zainduak izanik ere. Zuberoan esan dezakegu talde-berberatasun galtzea ez dela Gipuzkoako herri hortan bezain azkar.

Halere, ez naiz urrunago joanen norabide honetan²⁹. Baina, erakarpen analogikoaren bidez, aditz eta hiztun batzuen kasuan, **edünekiko* eraikuntzak *izanekiko* eraikuntza ordekatzen duelako gertaera kontraesankorra ez da aipatzen dugun gizarte-bilakaerarekin. Zubererak bere eraikuntza ergatiboa begiratzen du, ez du akusatiboarekikoa mailegatzen, baina subjektuaren emankizun semantikoak zabaltzen ditu **edünekiko* aditz-eraikuntza hedatuz.

7. SINTESIA: AHALEZKO FAKTOREEN TAULA – FAKTORE (KAUSA) / MEKANISMO / EFEKTU (EMAITZA)

Hona, behin behineko bukaera gisan, faktoreak eta efektuak biltzen dituen taula bat. Bataren ala bestearen lehentasunari buruz ez dut erabakiko. Hortan, zalantzarik gabe, ikerketa jarraitzeko eta zehazteko litzateke. Aditzaren arabera, hiztunaren arabera, indarrean diren faktoreak eta beren pisua berdinak ez direla esan dezakegu, eta beraz, aditz horiek multzo gisa hartuz, aztertu dugun hoiere joerari buruzko erabakitzea faktore bakarrekikoa izan ez daitekeela esan dezakegu ere.

BALIOBIKO ADITZEN MARKATZE SISTEMAREN BILAKAERA		
BARNEKO FAKTOREAK		EFEKTUAK
Barneko ekonomia (erakarpen analogikoa)	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Izan</i> (ABS+beste kasu)-ren etekin ahula • Eraikuntza aurkakotasun ez (gutxi) baliagarria • Oroimen ekonomia (“zekentasuna”) 	<ul style="list-style-type: none"> • Maila formala: <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ordezkatzeko ez osoaren bidezko sinplifikazioa <input type="checkbox"/> Eraikuntza horren maiztasun txikitua • Edukiaren maila: <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Motibazio semantikoaren murriztea <input type="checkbox"/> Bi argumentuen arteko bereizketa begiratu
	<ul style="list-style-type: none"> • Motibazio semantikoa (lehiaketa aditz teliko multzoa) 	<ul style="list-style-type: none"> • *<i>Edün</i> (ERG+ABS)-ren erabilera
KANPOKO FAKTOREAK		EFEKTUAK
Hizkuntza ukipena	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzbarneko ukipena : euskara batuaren ezagutza (edo beste euskalki) 	<ul style="list-style-type: none"> • Beste euskara barietaten aditz erabilera edo adiera desberdina • <i>Izan</i> (ABS+beste kasu)-rekiko eraikuntzaren

²⁹ Batzuek, behar bada, hipotesi hori euskalaritzan XX. mendeko erdi arte hedatua zen teoria pasibistari hurbildu nahi liokete. Pasibismoaren teoria erabiliz, euskararen morfologia ergatiboa frogatzen hartuz, orduko hizkuntzalari batzuek euskaldunen pentsamoldea pasibista zela, euskararen subjektua jasaletzat hartua zela erraten zuten. Teoria hori baztertua izan zen arrazoirekin. Nik artikulu honetan azpimarratu nahi nukeena da hizkuntzaz kanpoko faktore batzuek hizkuntza ere eragiten dutela, eta ez besterik.

		azkartzea aditz batzuentzat
	• Hizkuntzarteko ukipena : frantsesarekikoa	• Kalko semantikoa, * <i>edün</i> (ERG+ABS)-rekiko eraikuntzaren nagusitasuna
Gaitasun linguistikoa (adina, ama-hizkuntza, etab.)	• Elebitasun mota desberdinak	• Forma ez finkatuak, ezezagunak, eta ondorioz * <i>edün</i> (ERG+ABS)-ren erabilera
Munduaren ikuskera	• Egileari buruzko ikusmoldea	• * <i>Edün</i> (ERG+ABS) modelo bakarrarantz

BIBLIOGRAFIA

- BOSSONG Georg, 1992, Interaction entre fonctions actanciennes et sémantique des actants, *Programme in Language Typology*, European Science Foundation, Eurotyp Working papers, n° 4.
- _____, 1998, Le marquage de l'expérience dans les langues d'Europe, in *Actance et Valence dans les Langues de l'Europe*, Jack Feuillet (ed.), Berlin – New-York, Mouton de Gruyter, 259-294.
- _____, 2003, « Nominal and / or verbal marking of central actants », in *Romance objects. Transitivity in Romance languages*, Giuliana Fiorentini (ed.), Berlin – New-York, Mouton de Gruyter, 17-47.
- CHAMBERS J. K., 2004 (2002), Patterns of Variation including Change, in *The Handbook of Language Variation and Change*, Chambers J. K., Trudgill Peter, Schilling-Estes Natalie (ed.), 349-372.
- CHAMBERS J. K., TRUDGILL Peter, SCHILLING-ESTES Natalie, (ed.), 2004 (2002), *The Handbook of Language Variation and Change*, Malden (USA)-Oxford (UK)-Carlton (Australia), Blackwell Publishing.
- COYOS Jean-Baptiste, 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan.
- _____, 2005, Iragankortasunaren dinamikaz zubereraren : kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen ikerketaren lehen etapa, *Fontes Linguae Vasconum*, 100, Iruñea, Navarra, Gobierno de Navarra, 633-660.
- _____, 2007, Zubereraren bilakaeraz adibide batzuk, *Mendebaldeak badu Ekialdea. Zubereroa : Hizkuntza, literatura eta etorkizuna*, XI. Jardunaldiak, Bilbo, Mendebalde Kultur Alkartea, 21-38.
- CROFT William & CRUSE D. Alan, 2004, *Cognitive Linguistics*, Cambridge (UK), Cambridge University Press.
- DESCLES Jean-Pierre, 1998, Transitivity sémantique Transitivity syntaxique, in André Rousseau (éd.), *La transitivity*, Villeneuve d'Ascq, Presses Universitaires du Septentrion, 161-180.
- DOWTY David, 1991, Thematic proto-roles and argument relations, *Language*, 67/3, Baltimore (USA), 547-619.
- HADDICAN William F., 2005, Part I Language Variation and Change in Oiartzun, in *Aspects of Language Variation and Change in Contemporary Basque*, doctoral dissertation / tesi, www.soziolinguistika.org.

- HOPPER Paul J. - THOMPSON Sandra A., 1980, Transitivity in Grammar and Discourse, *Language*, 56, 2, Baltimore, W. Bright, 251-299.
- HOUEBINE Anne-Marie, 1985, Pour une linguistique synchronique dynamique, *La Linguistique*, 21, Paris, Presses Universitaires de France, 7-36.
- LABOV William, 1976 (1973), *Sociolinguistique [Sociolinguistic Patterns]*, Paris, Les Editions de Minuit.
- LÜTDKE Helmut, 1985, Diachronic irreversibility in word-formation and semantics, in *Historical Semantics Historical Word-Formation*, Jacek Fisiak (ed.), Berlin – New York - Amsterdam, Mouton Publishers, 355-366.
- _____, 1986, Théorie du changement langagier, *La Linguistique*, 22, 1, Paris, Presses Universitaires de France, 3-46.
- _____, 1989, Invisible-hand processes and the universal laws of language change, in *Language Change Contribution to the Study of Its Causes*, Leiv Egil Breivik and Erns Håkon Jahr (ed.), Berlin – New York, Mouton de Gruyter, 131-136.
- MARTINET André, 1955 (1980-2005), *Economie des changements phonétiques Traité de phonologie diachronique*, Bern, A. Francke / Paris, Maisonneuve et Larose.
- _____, 1975 (1973), Diachronie et synchronie dynamique, *Evolution des langues et reconstruction*, Paris, Presses Universitaires de France, 5-10.
- _____, 1989 (1984), De la synchronie dynamique à la diachronie, *Fonction et dynamique des langues*, Paris, Armand Colin, 47-52.
- _____, 1990, La synchronie dynamique, *La Linguistique*, 26, 2, Paris, Presses Universitaires de France, 13-23.
- ROUSSEAU André (éd.), 1998, *La transitivité*, Villeneuve d'Ascq (France), Presses Universitaires du Septentrion.
- SWIGGERS Pierre et VERLEYEN Stijn, 2002, Principes fonctionnels (dans l'explication) du changement linguistique, *La Linguistique*, 38, 2, Paris, Presses Universitaires de France, 105-115.

LABURPENA

Artikulu hau zubereraren baliobiko aditz zenbaiti buruzko ikerketaren bigarren etapa da, “kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak” deitu direnak (*FLV*, 100, 2005). Zubereraren, gaur egun, hogeita hamar bat aditz baino gehiago bi era ezberdinez eraikitzen dira, adiera berdinarekin. Kasu eta aditz-indize markatze bikoitza badute aditz laguntzailearen aldaketarekin. Aditz horiek aski apal dira iragankortasun semantiko eskalan. Era orokorrean, adineko hitzunez *izan* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak nahiago dituzte erabiltzen; alderantziz gazteek **edün* aditz laguntzailearekiko eraikuntzak nahiago lituzkete.

Gehienetan bariazio edo aldaketa linguistiko baten baldintzapenaren argitaratzea zaila da. Postulatzen dugun bilakaeraren eragileak horiek izan daitezke:

— hizkuntzaren barneko ekonomia, erakarpen analogikoa, jakinez konkurrentzian diren bi aditz-eraikuntzak elkarrekin bizitzen baitira; *izan*ekiko eraikuntzaren etekin funtzional apalari lotua den ordezkatzeta, eta beraz oroimen ekonomia, bi argumentuen arteko bereizketa galdu gabe;

— hizkuntza ukipena: hizkuntzabarneko ukipena, zubereraren eta euskara batuaren artekoa edo beste euskalkiarekiko aditz batzuen eraikuntza eta hizkuntzarte-ukipena: euskara/frantsesa (zeharkako kalkoak)

— edo, eta hau da hipotesi ausartena, aztertzen dugun bilakaera hizkuntzaz kanpoko faktore batek erakarria litzateke, pentsaketa eta biziaren moduaren aldaketa zehazki, non gero eta gehiago nahigabeko esperientzia jasaiten duena (*expérient*, *experiercer*) egiletzat hartua den.

Ikerketa honen zailtasuna da balizko faktore horien egiaztatzea eta bakoitzaren pisua neurtzea, aztertu den aditzaren arabera. Ondorio gisa, faktore ezberdin hoi-entzako taula sintetiko bat emana da.

RESUMEN

Este artículo es la segunda fase de un estudio consagrado a algunos verbos bivalentes en vasco souletino, llamados "verbos bivalentes a doble mercado casual" (*FLV*, 100, 2005). Más de una treintena de

verbos bivalentes se construyen actualmente en dialecto vasco souletino de dos maneras diferentes para un sentido idéntico. Tienen un marcado casual y verbal duplica con cambio de auxiliar. Son verbos bastante bajos en una escala de transitividad semántica. Las construcciones con *izan* « ser » los locutores viejos las utilizan más bien, los más jóvenes utilizan más bien las construcciones con **edün* « haber ».

El acondicionamiento de una variación y de un cambio lingüístico es generalmente complejo y difícil de poner al día. La evolución postulada podría deberse:

— a la economía interna a la lengua, atracción analógica, puesto que las dos estructuras en competencia ya coexisten; sustitución debida al rendimiento funcional escaso de la construcción en *izan*, y ahorro de memoria sin pérdida de la distinción de los dos argumentos;

— al contacto de lenguas: contacto intralingüístico entre el dialecto y el vasco unificado o de otras variedades de vasco para la construcción de algunos verbos, y contacto interlingüístico francés/vasco (calcos indirectos);

— o, es la hipótesis más audaz, debida a un factor externo como la evolución del modo de vida y pensamiento en el cual el argumento de tipo de lo que experimenta involuntariamente (*expérient, experiencer*) se ve cada vez más como un agente.

Toda la dificultad de esta investigación consiste en validar estos factores potenciales y a continuación en evaluar el peso respectivo, según los verbos en cuestión. A manera de conclusión, se propone un cuadro sintético de estos distintos factores.

RÉSUMÉ

Cet article est la deuxième phase d'une étude consacrée à certains verbes bivalents en basque souletin, appelés « verbes bivalents à double marquage casuel » (*FLV*, 100, 2005). Plus d'une trentaine de verbes bivalents se construisent à l'heure actuelle en dialecte basque souletin de deux façons différentes pour un sens identique. Ils ont un marquage casuel et indicial double avec changement d'auxiliaire. Ce sont des verbes assez bas dans une échelle de transitivité sémantique. Les constructions avec *izan* « être » sont plutôt utilisées par les locuteurs âgés, les plus jeunes utilisent plutôt les constructions avec **edün* « avoir ».

Le conditionnement d'une variation et d'un changement linguistiques est généralement complexe et difficile à mettre à jour. L'évolution postulée pourrait être due :

— à l'économie interne à la langue, attraction analogique, puisque les deux structures en concurrence coexistent déjà ; substitution due au rendement fonctionnel faible de la construction en *izan*, et donc économie mémorielle sans perte de la distinction des deux arguments ;

— au contact de langues : contact intralinguistique entre le dialecte et le basque unifié ou d'autres variétés de basque pour la construction de quelques verbes, et contact interlangue, français/basque (calques indirects) ;

— ou, c'est l'hypothèse la plus audacieuse, due à un facteur externe comme l'évolution du mode de vie et de pensée dans lequel l'argument de type expérient est vu de plus en plus comme un agent.

Toute la difficulté de cette recherche est de valider ces facteurs potentiels et ensuite d'en évaluer le poids respectif, selon les verbes considérés. En guise de conclusion, un tableau synthétique de ces différents facteurs est proposé.

ABSTRACT

This article is the second part of a study devoted to certain bivalent verbs of Souletine Basque dialect, called "bivalent verbs with double casual marking" (*FLV*, 100, 2005). At the present time in Basque Souletine dialect, there are two different ways to construct more than thirty bivalent verbs and retain the same meaning. They have a double case and indicial marking with change of the auxiliary. They are rather low verbs in a semantic scale of transitivity. Constructions with *izan* "to be" are rather used by older speakers, while younger Bascophones tend to use constructions with **edün* "to have".

The conditioning of a linguistic variation and of a linguistic change is generally complex and difficult to update. The postulated evolution could be due to :

— the internal economy of the language, analogical attraction, since the two structures in competition already co-exist; substitution due to the weak functional output of construction with *izan*, and memory-saving without loss of the distinction of the two arguments ;

— language contact : intra-linguistic contact between the dialect and Unified Basque or others Basque varieties for the construction of some verbs, and contact between languages, French/Basque (indirect loan translations) ;

— or, this being the most daring assumption, due to an external factor like the evolution of the way of life and thought in which the argument having to do with experience is seen more and more like an agent.

The difficulty of this research is found in the necessity of validating these potential factors and then of evaluating the respective weight of them, according to the verbs considered. As a conclusion, a summary table of the studied factors is proposed.